Bigarrena.- Baimen hau eduki arren, legeak agintzen duen udal baimena izan beharko da proiektua egiten hasi aurretik, eta ez du udalak hartutako erabakiaren edukiaren gaineko aurreiritzirik ematen.

Hirugarren.- Aurretiazko baimenak ez du administrazio bidea amaitzen, ezta horrek aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik; dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, Lantarongo Udalak baimena emateko edo ukatzeko ebazpena ematen duen arte. Orduan aurkeztu ahal izango da ebazpen horren aurkako errekurtsoa.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 4a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

Segundo.- La presente autorización no exime de la obligación de obtener la preceptiva licencia municipal con carácter previo a la ejecución del proyecto, ni prejuzga el contenido del acuerdo municipal correspondiente.

Tercero.- La autorización previa no pone fin a la vía administrativa ni impide su continuación y, consecuentemente, no resulta susceptible de recurso alguno, que únicamente podrá dirigirse contra la Resolución de otorgamiento o denegación de la licencia por parte del Ayuntamiento de Lantarón, en calidad de Órgano competente para dictar el acto administrativo que proceda.

Vitoria-Gasteiz, 4 de junio de 2009.– El Diputado De Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**4369**

**275/2009 FORU AGINDUA, ekainaren 4koa. Honen bidez, Aiarako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen "Murgako industrialdea handitzea" sektoreko kontserbazio batzarra Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzen da.**

Aiarako Udalak, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2009ko apirilaren 1ean sarrera izan zuen idazki baten bidez, Aiarako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen "Murgako industrialdea handitzea" sektoreko kontserbazio batzarra eratzea onartzeko hartu zen erabakiaren berri ematen zion sail honi, baita batzar hori Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzeko eskatu ere.

Hirigintza Zerbitzuak espedientearen formaren eta prozeduraren zuzentasunari buruzko txosten arrazoitua eman zuen, eta batzarra erregistroan sartzeko proposamena egin zuen.

Horregatik, neure esku ditudan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

"Murgako industrialdea handitzea" sektoreko kontserbazio batzarra eratzeari buruzko espedientearen eta Aiarako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen izapidetzea eta forma edukia onartzea eta batzar hori Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan sartzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 4a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**4369**

**ORDEN FORAL 275/2009, de 4 de junio, de inscripción de la Junta de Conservación del Sector "Ampliación del polígono industrial de Murga", de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ayala, en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.**

El Ayuntamiento de Ayala, mediante escrito con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 1 de abril de 2009, remite a este Departamento Acuerdo aprobatorio de la Constitución de la Junta de Conservación del Sector "Ampliación del Polígono Industrial de Murga", de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ayala, solicitando su inscripción en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.

El Servicio de Urbanismo eleva informe razonado admitiendo la corrección formal y procedimental del expediente y proponiendo su inscripción en el Registro.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Aprobar la tramitación y el contenido formal del expediente de Constitución de la Junta de Conservación del Sector "Ampliación del Polígono Industrial de Murga", de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ayala, y ordenar su inscripción en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 4 de junio de 2009.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**4396**

**281/2009 FORU AGINDUA, ekainaren 4koa. Honen bidez behin betiko onartzen da Erribera Beitiko arau subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko espedientea, Rivabellosako 1 poligonoko 335.c lurzatiari buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Erribera Beitiko Udalak, 2008ko otsailaren 13an, hasierako onarpena ematea erabaki zuen udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteari, Rivabellosako 1 poligonoko 335.c katastro lurzatiari buruzkoari (edo arauetako R03/P12B lurzatiari buruzkoari), eta Inmobiliaria Urbaplus SL enpresak

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**4396**

**ORDEN FORAL 281/2009, de 4 de junio, de aprobación definitiva del expediente de Séptima Modificación de las Normas Subsidiarias de Ribera Baja referente a la parcela 335.c del polígono 1 de Rivabellosa.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 13 de febrero de 2008, el Ayuntamiento de Ribera Baja acordó aprobar inicialmente la séptima modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referente a la parcela catastral 335.c del polígono 1 (o parcela R03/P12B de las Normas) de Rivabellosa, promovida por Inmobiliaria Urbaplus, S.L, así como

sustatutakoari; baita espediente hori hilabete jendaurrean jartzea ere. Horretarako, iragarki bana argitaratu zen 2008ko martxoaren 7ko ALHAOn (29 zenbakia), 2008ko apirilaren 2ko El Correo egunkarian eta udaletxeko iragarki taulan.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu; beraz, behin-behineko onarpena eman zion Udalak espedienteari 2008ko apirilaren 16an egindako bilkuran.

Hirugarrena.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Planeamendu Atalak aldeko iritzia agertu zuen uztailaren 17ko 5/2008 bilkuran.

Laugarrena.- Erribera Beitiko Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali zion espedientea (sarrera eguna: 2009ko martxoaren 12a) behin betiko onar zezan.

Bosgarrena.- Espedientea aztertu eta osatu gabe zegoela konturatu ondoren, Lurralde Orekaren Zuzendaritzak idazki bat bidali zion Udalari 2009ko martxoaren 20an, falta zena osa zezala eskatzeko, eta hala egin zuen, bidali beharreko agiriak bidalita, 2009ko apirilaren 2an.

Seigarrena.- Era berean, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak maiatzaren 29ko 4/2009 bilkuran aztertu zuen espedientea.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Espedienteak zehatz zehazten du Rivabellosako 1 poligonoko 335.c katastro lurzatiari (edo arauetako R03/P12B lurzatiari) egotzitako eraikigarritasuna eta erabilera.

Egia esan, eta agiri teknikoaren memorian jasotzen denaren eta Udalak dioenaren arabera, lurzati hori lehengo arau subsidiarioetako UE-5 egikaritze unitatekoa zen. Lurzati hori izan ezik, UE-5 egikaritze unitatearen gainerako lurzorua Udalak proposatutako irizpide hauek oinarritzat hartuta eraiki zen:

1.- Eraikitako zatia (edo lehen fasea) atzeratu egin zen aurrealdeko mugatik 1999ko arau subsidiarioetan proposatutakoa baino distantzia handiagora, ikastola publikora sartzeko kalea zabaltzeko.

2.- Egun eraiki gabe dagoen zatia (edo bigarren fasea) eraiki gabe geratu zen, harik eta alboko sektorearen xehekatutako antolamendua zehaztu arte, eta ondorioz, hura non egoki kokatu jakin arte.

3.- Gainera, eraiki gabeko lurzati horri arauek egotzitako eraikigarritasuna eta erabilera, orduan indarrean zirenak, errespetatuko zituela hitzeman zuen Udalak.

Horiek horrela, 2004ko urtarrilaren 30ean behin betiko onartutako eta indarrean diren arau subsidiarioek ez zuten kontuan izan Udalak hitzemandakoa, ez baitzen merkataritza erabilera onartu aldaketaren xede ziren lurretan; aldiz, bazegoen onartuta 1999ko arauetan.

Bigarrena.- Aurrekari horiekin bat etorriz, espediente honek honela ezartzen du 335.c lurzatiaren eraikigarritasuna eta erabilera:

A.- Hirigintza eraikigarritasuna: 257,95 m$^2$t

B.- Eraikinaren solairu kopurua: beheko solairua

C.- Eraikinaren altuera: 5 m erlaitz edo hegalera

D.- Baimendutako erabilerak: merkataritza eta hirugarren sektorea

E.- Gainera, lehen fasean eraikitakoari atxikiko zaio eraikina.

Hirugarrena.- Arau subsidiarioen antolamendu xehekaturari baino ez dio eragiten aldaketa horrek.

Agiri tekniko guztiak osorik aurkeztu dira, nola edukian hala forman, eta hirigintza legediak xedatutakoaren arabera izapidetu dira.

Horregatik, neure esku ditudan ahalmenez baliatuta, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea planeamenduko arau subsidiarioen zazpigarren aldaketa, Rivabellosako 1 poligonoko 335.c katastro lurzatiari buruzkoa (edo arauetako R03/P12B lurzatiari

someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA nº 29, de 7 de marzo de 2008, en el Periódico El Correo de 2 de abril de 2008 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el período de información pública no hubo alegaciones, procediendo el Ayuntamiento, en sesión del día 16 de abril de 2008 a aprobar provisionalmente el expediente.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, fue informado por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión 5/2008, de fecha 17 de julio.

Cuarto.- El Ayuntamiento de Ribera Baja remitió el expediente a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 12 de marzo de 2009.

Quinto.- Analizado el expediente y encontrándolo incompleto la Dirección de Equilibrio Territorial en fecha 20 de marzo de 2009 dirigió al Ayuntamiento un escrito solicitando la subsanación de las deficiencias detectadas, cosa que aquél efectuó mediante la remisión de los documentos pertinentes en fecha 2 de abril de 2009.

Sexto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 4/2009, de 29 de mayo.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente viene a determinar con precisión la edificabilidad y su uso asignados a la parcela catastral 335.c del polígono 1 (o parcela R03/P12B de las Normas) de Rivabellosa.

En realidad y según se manifiesta en la memoria del documento técnico y ratifica el Ayuntamiento, la mencionada parcela pertenecía a la UE-5 de las anteriores Normas Subsidiarias. Excepción hecha de la mencionada parcela, el resto de la UE-5 fue edificado siguiendo estos criterios propuestos por el Ayuntamiento:

1º.- La parte edificada (o primera fase) se retranqueó del lindero frontal una distancia superior a la propuesta en las Normas Subsidiarias de 1999, a fin de dar mas anchura a la calle que accede a la ikastola pública.

2º.- La parte hoy inedificada (o segunda fase) quedó de momento sin construir hasta que se definiera la ordenación pormenorizada del sector adyacente y, consecuentemente, la ubicación idónea de aquélla.

3º.- Por su parte el Ayuntamiento se comprometió a respetar la edificabilidad y el uso asignados por las Normas, vigentes en aquella fecha, a la referida parcela inedificada.

Así las cosas, las actuales Normas Subsidiarias, aprobadas definitivamente en fecha 30 de enero de 2004, olvidaron el mencionado compromiso al no admitir en los terrenos objeto de la modificación el uso comercial, que sí estaba contemplado en las Normas de 1999.

Segundo.- De acuerdo con los anteriores antecedentes, el presente expediente fija la forma de la edificación y uso de la parcela 335.c en estos términos:

A.- Edificabilidad Urbanística: 257,95 m$^2$t.

B.- Número de plantas de la edificación: planta baja.

C.- Altura de la edificación: 5 m. a la cornisa o alero.

D.- Usos autorizados: Comercial y terciario.

E.- Además, el edificio se adosará al construido en la primera fase.

Tercero.- La modificación descrita afecta exclusivamente a la ordenación pormenorizada de las Normas Subsidiarias.

La documentación técnica aportada es completa tanto en su contenido sustantivo como en el formal y ha sido tramitada según establece la legislación urbanística.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de la “Séptima modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referente a la parcela catastral 335.c del polígono 1 (o parcela R03/P12B de las

buruzkoa), Inmobiliaria Urbaplus SL enpresak sustatutakoa eta udalerri horretako udal horrek izapidetutakoa.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Admi-nistrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aurrean aipatutako errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsoa ebazpena eman duen organoaren aurrean, hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 4a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua,, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

**RO3/P12B LURZATIAREN ARAUDI BERRIA**

1. Erabilera: merkataritza eta hirugarren sektorea
2. Gehieneko eraikigarritasuna: 257,95 m$^2$
3. Gehieneko garaiera: solairu bat, 5 m erlaitzera
4. Estalkia: Aurrealdeko eta atzealdeko fatxadetan ehuneko berrogeita hamarreko malda izango duen plano batek osatutako lerro inguratzailean egongo dira estalkiak. Azken forjatuak izan dezakeen punturik garaienean goiko aldean dauden planoak eta baimendutako gehieneko teilatu hegalaren alboan dagoen plano bertikala elkartzen diren puntutik pasatzen da plano hau.
5. Estalki gaineko eraikuntzak:

A. Erlaitzaren gehieneko garaieratik gora honako hauek eraiki ahal izango dira oro har:

a) Estalkiaren aireztapenak

b) Eskailera kaxak, argi zuloak eta igogailuen etxolak, zeinak ezingo baitira egon erlaitza baino lau (4) metro gorago.

B.- Finkatutako gehieneko garaieratik gora ezingo da ezer eraiki, salbu eta aireztapenerako edo kea kanporatzeko tximiniak edo berogailuaren eta aire egokituaren tximiniak. Kasu horietan, haien funtzionamendu egokirako eraikuntzen arau teknologikoek ezartzen duten altuera izango dute, edo, bestela, eraikitze lanak ondo egiteak eskatzen duena.

6. Patio inglesak: orubearen mugen barruan egin ahal izango dira.
7. Teilatu hegalak: bide publikotik 3 metrora, gutxienez, egon eta metro 1eko hegada duten hegalak egin ahal izango dira.
8. Sotoak eta erdisotoak egin ahal izango dira, baldin eta muga hauek betetzen badira:

A. Sotoa: sotoko solairua da eraikitako azaleraren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago beheko solairuaren kotaren azpitik duena. Garaiera librea ezin da berrehun eta hogei zentimetro (220 cm) baino gutxiagokoa izan.

B. Erdisotoa: eraikitako azaleraren ehuneko berrogeita hamar baino gehiagoren lurreko planoa behe solairuaren kotaren azpitik eta sabaiko planoa kota horren gainetik duen solairua da. Erabileraren berezko ezaugarrien araberakoa izango da garaiera librea, betiere, gutxienez, berrehun eta hogei (220) zentimetrokoa izanda.

Sestra gaineko solairutzat hartuko dira ondorio guztietarako sabaiko forjako goiko aldeko edozein puntu espaloiko edo lurreko sestratik metro batera (1 m) edo gehiagora dauden erdisotoak.

Normas) de Rivabellosa”, promovida por Inmobiliaria Urbaplus, S.L y tramitada por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 4 de junio de 2009.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

**NUEVA NORMATIVA DE LA PARCELA RO3/P12B**

1. Uso: Comercial y Terciario
2. Edificabilidad máxima: 257,95 m$^2$
3. Altura máxima: Una planta, 5,00 m a la cornisa
4. Cubierta: Las cubiertas estarán comprendidas dentro de la envolvente formada por un plano que pasando por la intersección de los planos de la cara superior del último forjado (en su altura máxima permitida) con el vertical por el extremo del alero máximo permitido, discurra con una pendiente del cincuenta por ciento en las fachadas frontal y posterior.
5. Construcciones sobre la cubierta:

A. Por encima de la altura máxima de cornisa, podrán admitirse con carácter general las siguientes construcciones:

a) Las ventilaciones de la cubierta.

b) Los remates de las cajas de escaleras, lucernarios y casetas de ascensores, que no podrán sobrepasar una altura total de cuatro (4) metros sobre la altura de cornisa.

B. Por encima de la altura máxima total que se determine, no podrá admitirse construcción alguna, excepto chimeneas de ventilación o de evacuación de humos, calefacción y acondicionamiento de aire, con las alturas que en orden a su correcto funcionamiento determinen las Normas Tecnológicas de la Edificación, y en su defecto el buen hacer constructivo.

6. Patios ingleses: Se autorizan dentro de los límites del solar.
7. Aleros: Se permiten aleros con una altura mínima sobre la vía pública de 3,00 m y un vuelo máximo de 1 m.
8. Sótanos y semisótanos, se consienten con las siguientes limitaciones:

A. Sótano: Se entiende por planta de sótano aquélla, en que más de un cincuenta por ciento de la superficie edificada, tiene su techo por debajo de la cota de planta baja del edificio. La altura libre no será inferior a doscientos veinte (220) centímetros.

B. Semisótano: Es aquélla, en la que más de un cincuenta por ciento de la superficie edificada, tiene el plano de suelo por debajo de la cota de planta baja, y el plano de techo por encima de dicha cota. La altura libre exigible será función de las condiciones propias del uso, con mínimos absolutos de doscientos veinte (220) centímetros.

Los semisótanos cuya cara superior del forjado de techo se encuentre en cualquiera de sus puntos a distancia mayor o igual de un metro (1) respecto de la rasante de la acera o terreno, se consideran a todos los efectos plantas sobre rasante.

9. Gainerako zehaztapen guztietarako, arau subsidiarioen arau nagusiek eta aplikatu beharreko arloko arauek xedatzen dutena bete beharko da.

## FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**4411**

**237/2009 FORU AGINDUA, ekainaren 10ekoa. Honen bidez, hautatuen behin-behineko zerrenda argitaratzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean 2007ko enplegu eskaintza publikoan sistema irekiaren txanda orokorraren bidez karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, erdi-mailako teknikarien klasea, NEKAZARITZAKO INGENIARI TEKNIKOA, B taldea.**

Abenduaren 28ko 187/2007 Foru Arauaren bitartez onartu ziren Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2007ko enplegu eskaintza publikoa arautzen duten oinarri orokorrak.

Hamargarren oinarri orokorrak aurreikusten du izangaiek deitutako lanpostuak zein hurrenkeratan nahi dituzten aukeratutakoan, Epaimahaiak hautatutakoen behin-behineko zerrenda egingo duela. Bertan, haietako bakoitzari dagokion destinoko lanpostu zehatza azalduko da, irizpide hauen arabera: izangai bakoitzak dagokion txandan lortutako puntuen ordena, eskainitako lanpostuen artean adierazitako lehentasun ordena eta lanposturako eskatutako hizkuntza eskakizuna bete beharra.

Halaber, aipaturiko hamargarren oinarriak ezartzen du hautatuen behin-behineko zerrenda ALHAOn argitaratuko dela, Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren Foru Agindu baten bitartez, eta hamar laneguneko epea irekiko dela erreklamazioak aurkezteko.

Deialdiko epaimahaiak egindako proposamena ikusita.

Diputatu Nagusiaren abuztuaren 8ko 186/2007 Foru Dekretuan, Foru Aldundiaren Sailak zehazten dituenean, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuan, Funtzio Publikoaren alorreko eskurantzak ezartzen dituenean, eta maiatzaren 20ko 40/2008 Foru Dekretuan, Funtzio Publikoaren alorrean eskumena duen Sailaren egitura organiko eta funtzionala onesten duenean, ezarritakoarekin bat etorriz,

XEDATU DUT

Lehenengoa. Hautatuen behin-behineko zerrenda argitaratzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean 2007ko enplegu eskaintza publikoaren bidez karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, erdi-mailako teknikarien klasea, NEKAZARITZAKO INGENIARI TEKNIKOA, B taldea:

| IZENA | ESLEITUTAKO DESTINOA | KODEA |
|---|---|---|
| Alfredo Saez de Castillo Beltrán de Otalora | Nekazaritza garapeneko egituretako teknikaria | 1228.005 |
| Luis María Calzada Argote | Nekazaritza azpiegituretako teknikaria | 1228.003 |
| Carmen Gaisan Uriarte | Nekazaritza azpiegituretako teknikaria | 1227.001 |
| Luis Pablo Marañon Martinez de Lagrán | Nekazaritza garapeneko egituretako teknikaria | 1228.001 |
| Aimar Atxurra Alcalde | Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria | 1229.005 |
| Mª Nieves Viloria Ocharan | Landare osasunaren erregistro eta kontroleko teknikaria | 1226.001 |
| Amaya Lekuona Armentia | Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria | 1229.014 |
| Ignacio Burguera Irigoyen | Enologiako nekazaritza egituretako teknikaria | 1224.001 |

9. Para el resto de determinaciones se estará a la normativa de carácter general de las NNSS y sectorial que sea de aplicación.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN FORAL

**4411**

**ORDEN FORAL número 237/2009, de 10 de junio, por la que se publica la Relación Provisional de seleccionados/as en la Convocatoria para el ingreso como funcionario/a de carrera en la escala de administración especial, subescala técnica, clase técnicos/as medios, INGENIERO/A TÉCNICO/A AGRÍCOLA, Grupo B, por el turno general del sistema de acceso libre, correspondiente a la oferta de empleo público para el año 2007 de la Administración General de la Diputación Foral de Álava.**

Por Orden Foral nº 187/2007, de 28 de diciembre, se aprueban las bases generales reguladoras de la oferta de empleo público para el año 2007 de la Administración General de la Diputación Foral de Álava.

La base general décima prevé que una vez manifestado por los/as aspirantes el orden de preferencia respecto de los puestos convocados, se confeccionará por el Tribunal una relación provisional de personas seleccionadas, que indicará el puesto de destino concreto que corresponde a cada una de ellas según los siguientes criterios: el orden de puntuación de cada aspirante en su respectivo turno, el orden de preferencia manifestado de entre los puestos ofertados y el cumplimiento del requisito del perfil lingüístico exigido para el puesto.

Asimismo, la mencionada base décima establece que la relación provisional de seleccionados/as se publicará, mediante Orden Foral del Diputado de Presidencia, en el BOTHA, estableciéndose un plazo de reclamaciones de diez días hábiles.

A la vista de la propuesta efectuada por el Tribunal de la Convocatoria.

De conformidad con lo establecido en el Decreto Foral del Diputado General 186/2007, de 8 de agosto, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral, y con los Decretos Forales 154/1993 del Consejo de Diputados de 30 de julio, por el que se establecen las atribuciones en materia de Función Pública y 40/2008, de 20 de mayo, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento competente en materia de Función Pública,

DISPONGO

Primero. Publicar la Relación Provisional de personas seleccionadas, con indicación del puesto de destino concreto, en la convocatoria para el ingreso como funcionario/a de carrera en la escala de administración especial, subescala técnica, clase técnicos/as medios, INGENIERO/A TÉCNICO/A AGRÍCOLA, Grupo B, por el turno general del sistema de acceso libre correspondiente a la oferta de empleo público para el año 2007 de la Administración General de la Diputación Foral de Álava:

| NOMBRE | PUESTO | CÓDIGO |
|---|---|---|
| Alfredo Sáez de Castillo Beltrán de Otalora | Técnico/a de estructuras de desarrollo agrario | 1228.005 |
| Luis María Calzada Argote | Técnico/a de infraestructuras agrarias | 1228.003 |
| Carmen Gaisan Uriarte | Técnico/a de infraestructuras agrarias | 1227.001 |
| Luis Pablo Marañon Martinez de Lagrán | Técnico/a de estructuras de desarrollo agrario | 1228.001 |
| Aimar Atxurra Alcalde | Técnico/a de ayudas y divulgación agraria | 1229.005 |
| Mª Nieves Viloria Ocharan | Técnico/a de registro y control fitosanitario | 1226.001 |
| Amaya Lekuona Armentia | Técnico/a de ayudas y divulgación agraria | 1229.014 |
| Ignacio Burguera Irigoyen | Técnico/a de estructuras agrarias de enología | 1224.001 |